



**Ordiziako Udala**

2017IOSB0009

Ordizian, **2017ko urriaren 26a** UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

**BERTARATUTAKOAK:**

**LEHENDAKARIA:**

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Joseba Aranburu Gauzarin	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Euskal Sozialistak-Socialistas vascos

**IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

**IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea

**KONTUHARTZAILEA:**

**BERTARATUAK:**



## **BESTE RTARATZE ETA IRTEERAK**


### **AZTERTUTAKO GAIAK**

#### **EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

1. 2017ko Irailaren 28an udalbatzarrak egindako osoko bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.
2. 2017ko urriaren 5ean udalbatzarrak egindako aparteko osoko bilkuraren zirriborroa onartzea.
3. Iraileko Alkatetza dekretuen berri ematea.
4. Ordizia Orainek Aralarko Enirio eta Igaratza pista proiektuari buruz aurkeztutako mozioa.
5. Goierriko Foru Bidegorrien eraikuntzaren alde EH-BILDUK aurkeztutako mozioa.
6. PSEE-PSOEK Mexikon izandako lurrikarak kaltetuentzako laguntza ekonomikoa emateko mozioa.
7. HAPOn Aurrerakinaren erakusketa publikorako akordioa.
8. Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako 5"ITURTXO" Hirigintza Interbentzio Eremuaren 2.3 Exekuzio Unitatearen Xehetasun Azterketa behin betiko onartzea.
9. Kreditu aldaketa: kreditu transferentzia.
10. Kreditu aldaketa: kreditu gehigarria.
11. Plantilla Organikoaren eta San Jose Egoitza Erakunde Autonomoaren Lanpostu Zerrenda aldatzea 2017rako.
12. 2018rako auto-taxien prezioak onartzea.
13. Elkarkidetzako kuoten erregularizazioa onartzea.
14. Garapenerako lankidetzeta programak sustatzeko diru-laguntzak ematea.
15. Galde-erreguak.

#### **PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**

#### **GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:**



**Ordiziako Udala**

2017IOSB0009

**GORABEHERAK**

**ORDUTEGIA:**

**HASIERA: 19:00etan**

**AMAIERA: 21:25etan**





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2017ko irailaren 28ako ohiko Osoko Batzarrako akta onartzea.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida:

Eguren jaunak adierazi du aktaren 13. puntuan "Galderak eta eskaerak" puntuan, alkateari egindako lehenengo galderari alkateak berak emandako erantzuna ez dagoela ondo jaso. Esan du aktak jasotzen duela "Alkateak erantzun dio eta gehitu du bizpahiru bisita egingo direla beste udaletara antolakuntza hobetzeko lanen ondorioz bertan izan diren aldaketak egiaztatzen. *Bisita horietara joateko oposizioko taldeak gonbidatuko dituela esan du.*"

Esan du errealitatean alkateak ez ziola erantzun zuzenean egindako galderari.

Beraz, kendu egin beharko litzateke "gehitu" hitza.

Horrela idatzita geratuko litzateke beraz: "Erantzun dio bizpahiru bisita egingo direla beste udaletara antolakuntza hobetzeko lanen ondorioz bertan izan diren aldaketak egiaztatzen. *Bisita horietara joateko oposizioko taldeak gonbidatuko dituela esan du.*"

Bozketa

Zuzenketa egin ostean bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

***Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du aho batez.***



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



## **2.-2017ko urriaren 5ean egindako aparteko Osoko bilkurako akta onartzea.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

### Eztabaida:

Sukia andreak esan du, "ordenantza fiskalen hasierako onarpena" aztertutako puntu bakarrean egin zuen interbentzioan, ez dela jaso berak esandakoa osorik eta osorik jasotzea nahi du.

Sukia andrearen interbentzioa, beraz, horrela jaso geratzen da:

*"Ordizia Orainek, udal gobernu-taldeak proposatutako Ordenantza fiskalen aldaketaren aurka bozkatuko du; horretarako hainbat arrazoi daude:*

*1.- Legealdi honen hasieratik salatu dugu hau, Ordenantza fiskalak onartuko dira berriro korrika eta presaka, Udal honetan egiten diren beste hainbat gauza bezalaxe, eta 2018ko urtariletik edo dagokion urtetik aurrera aplikatzeko gutxieneko denbora juxtuarekin.*

*Adierazi dugun moduan, zinegotzi gisa osoko bilkuran sartu ginen 1. minututik bertatik aurrera, argi utzi genuen Ordenantza Fiskalak berraztertu eta aldatzeko beharra ikusten genuela, eta argi eta garbi eskatu genuen hori. Nolanahi ere, egoera beraren aurrean gaude berriro ere. Gure ustez gauza asko aztertu edota aldatu behar lirateke:*

**OHZ.-** *%50eko hobaria hirigintza, eraikuntza edo higiezinaren sustapen enpresa-jardueren xede diren higiezinetan edo %25a lehenengo hiru urteetan babes ofizialeko etxebizitzetan. Lehenengo kasuan aplikatu behar den ala ez, zalantza dugu, baina horrela izanez gero, sustapena eraikitzen ari direneko epeari dagokiona izan behar luke. Babes Ofizialeko Etxebizitzetara dagokienez, ez da hobaririk aplikatu behar pertsona onuradunen diru-sarrerekin bat ez badator behintzat. Eta zer esan familia ugari buruz, urteko 80.000 euro baino diru-sarrerera handiagoak ez dituztenentzako. Gure ustez aztertu egin beharko litzateke hobari hau familia-kide kopuruaren, etxebizitzaren azaleraren eta nola ez, diru-sarreraren arabera izatea. OHZk ere progresiboa izan behar luke, eta aberastasuna birbanatzeko balio izan behar luke.*


**IBILGAILUAK.-** *25 urte baino zaharragoak diren ibilgailuetan %100eko hobaria. Ez dugu ondo ulertzen, ibilgailu hauek kutsatzen dute gehien! Ez gatoz bat hobari honekin ez bada interes bereziren bat duten ibilgailu historikoekin lotzen, horretarako prestatua dagoen erregistro batean inskribatutakoak izani ibilgailu horiek.*

*Beste alde batetik Ordenantzak minusbaliotasunaren salbuespena aipatzen du, baina ez du aurreikusten.*

**EIOZ.-** *zerga honen ordainarazpenerako pikarokeria handia dago oinarri ekonomikoa lortzeko orduan. Zein kopururen gainean aplikatzen da zerga-tasa. Bere garaian ere hausnarketa bat egin genuen, Foru Ogasunarekin koordinatzeko aukeraz, obrak burutzen dituzten enpresek ematen dituzten datuen errealitatea egiaztatzeko.*

**HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA.-** *Formula Foru Arauak proposatzen du.*

**ZERBITZU PUBLIKOAK ETA ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK EMATEAGATIK TASAK.** *Sortzapen-xede diren egintza berriak sartzea. Telefonía mugikorra, besteak beste.*



**DOMEINU PUBLIKOKO ERABILERA PRIBATIBOAGATIK TASA.-** Herritar ugari ukitzen dituzten hornidura zerbitzuetako enpresentzat udalerrian fakturaziotik datozen diru-sarrera gordinen %1,5ekoa da. Eta guk diogu, bidaltzen dizkiguten datuez fidatu behar dugu? Gure proposamena, besteak beste, okupatzen duten azalera eta lurpeko metro lineal unitateko tasa bat izan daiteke, eta gure kaleak eta espaloiak okupatzen dituzten tapa/kutxatilen metro karratuko tasa.

**ZABORRAK JASOTZEKO TASA** aurrerapauso bat ematearen aldeko apostua egiten dugu, hondakin gehien sortzen dutenek gehiago ordaintzea proposatzen dugu.

**HAUR ESKOLAKO TASA.-** Nola ordain dezake urteko 15.626 euro baino gutxiagoko errentak dituzten familiek 240 euroko hileko kuota bat? emakume askok lanaldi erdiei uko egiten diete haur eskolak duen gastua ezin dutelako bere gain hartu. Ez al da ba, administrazioak herritarrei eskaini beharreko zerbitzu publiko bat, eta beraz, doakoa?

### **Eta abar.**

Udal kontu-hartzaileak, alderdi politikoen arteko bilera batean gure bozka-asmoa zein zen ikusita, proposamen bat egin zigun, zinegotzi guztiakin bilera bat egitekoa toki erakundeen (Udalak) sistema fiskala azaltzeko eta gero Ordenantza Fiskalak aztertzeko banaka-banaka. Bere ekimena eskertzen dugu, borondate onez egin zuela iruditzen zaigulako, baina errespetu osoz, proposamen hori ez dagokio teknikariari gobernu taldeari baizik.

2.- Guk kontra bozkatzearen beste arrazoietako bat, besteak beste, proposamenak udal tasa eta zergetarako KPlaren igoera aurreikusten duela da eta hondakinen bilketa/kudeaketa tasan zehazki %10a, eta igoera honek pentsioek izan duten igoera (%0,25a) eta baita Udal honetako langileen ordainsariaren igoera (%1a) gainditzen du. Ez da proportzionala, eta ez da egokitzen beraz gure herritarren erosketa ahalmenaren aldaketara.

Hau guztia esanda, hala ere, prest egongo ginateke topagune batera iristeko adostasunaren eta udal politika on bat egitearen alde, baina hori ez da posible. Eta hori ez da posible Udal honetan gobernu taldeak adostasuna soilik proposatzen duelako interesatzen zaizkion gaietarako, ahalegina oposizioko taldeei eskatzen die soilik. Ordizia Orainek herritarrentzako oso interesgarriak diren proposamenak egin ditu eta gutxietsi egin gaituzte.

ETA BESTE BAT GEHIAGO, horixe bakarrik falta zen, Alkate jauna, onariez adierazpena, errespetuz esandakoa eta eskatzaileei begirunez esandakoa, baina "lehoietara botatzen gaitu". Hirutan, gutxienez, azken lau hilabeteetan, ekimen pribatuetako bilera eskaerak jaso ditugu, Udalean dagokion eskaera egin dutenen gaiak aztertzeko, eta horiek guztiak hirigintzako gaiak izan dira. Guk ez dugu arazorik horretarako eskaera egiten diguten herritarrekin bilera egiteko, baina ez da onartzeko modukoa Alkate jaunak hala adierazi dielako etortzea, "oposizioak zein iritzi izango duen ez dakidanez, beraiekin aztertu gaia zuzenean" aitzakiarekin. Eta honek guztiak ez luke aparteko eragozpenik sortuko bestela, baina aldeztu aurretik alkateak ez digu informaziorik eman, Alkate jaunak ez digu esan zer eskaera, proposamen dagoen... zein iritzi zuen udal teknikariak proposamen hauei buruz. (Goietxe, Elkano 10, Ormazabal...)



## Ordiziako Udala

2017IOSB0009

*Kasu hauetarako zergatik ez digu bilera-deialdirik egin eta adostasuna sustatu? Jarrera horrek bere erantzukizunaren erabateko utzikeria azaltzen du eta udal erakundearen eta bere gobernuaren degradazioa ekartzen du.*

*Jarrera horrek erantzun sendoa merezi du, gu ez gaude hemen horretarako, lan egiteko aurkeztu ginen eta ez energia gastatzeko alkateak ipintzen dizkigun oztopo guztiak gainditzen.*

Ezenarro jaunak, puntu horretan bertan, esan du bere interbentzioa ez dela jaso adierazi zuen modu berberean. Bere interbentzioaren bigarren paragrafoa horrela jaso beharko da:

“Pasa den urtean adostu zen zerga edo tasek orokorrean azterketa sakonagoa behar zutela egoera paradoxikoak ematen zirelako eta batez ere hondakinen bilketa tasetan.

Aurten berriro ere onartu egingo dira azterketa hori egin gabe eta bere ustez, zergen aplikazioan logikoak ez diren egoerak ematen dira eta zuzendu egin behar dira. Proposamenaren alde bozkatuko dute baina aktan berariaz jasotzea nahi du.

### Bozketa


Zuzenketa egin ostean bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

***Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du aho batez.***



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **3.- Iraileko Alkatetza Dekretuen berri ematea.**

Sukia andreak “kontratu txikiak” 17/0773 dekretuaz galdetu du.

Alkate jaunak esan dio une honetan ezin diola horri buruzko informaziorik eman baina bihar bertan esango diola.



**Osoko bilkura jakinaren gainean dago.**



#### **4.- ORDIZIA ORAINen mozioa,Enirio-Aralar mendietan Enirio-Igaratza pista egiteari buruzkoa.**

##### Proposamena

Aralarko Enirio eta Igaratzako txaboletara mendi-bideen ibilgailu motorizatuentzako egokitzapen proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua dela eta, Ordiziako Udalak adierazten duen iritzia.

Izenburuan aipatutako izapidean Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendari Nagusiak Ordiziako Udalaren iritzia eskatzen du, ea proiektuak ingurumenaren gainean eragin esangarriak izan ditzakeen eta saihesteko edo gutxitzeko neurriei buruz zerbait adierazi dezakegun.

Honen aurrean Ordiziako Udalak hurrengo adierazi eta galdetzen du:

Enirio-Aralarko eremu osoa Aralarko Parke Naturalean kokatzen dela eta, ondorioz, 168/1994 DEKRETUA, apirilaren 26koa, Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) onesten duena, dela proiektuak bete behar duen oinarrizko araua.

NBAP honek, 16. atalean, eraikuntza eta azpiegitura jardueri buruzko jarraibideetan diola: Aralarko Parke Naturalerako bide-azpiegituren plan bat eratuko da, mendizerraren bide sarerako plangintza orokorki eginez.

Zuzendari Nagusiak ongi dakien bezala, Aralarren ez da bide-azpiegituren planik onartu eta, beraz, Aldundia inongo oinarririk gabe pista bat bestearen atzetik eraiki eta eraikitzen jarraitzeko asmoa azaltzen du oraingo honetan ere, indarrean dagoen araudia betetzeko inongo asmorik azaldu ere gabe.

Honen aurrean Zuzendari Nagusiari eskatzen diogu: araudia bete dezala eta pista berri bat eraikitzeko proiektua ez baizik eta bide-azpiegituren plan bat eratzeko proiektua aurkeztu dezala pista berriak eraiki aurretik.

Aurrekoarekin jarraituz, plangintza falta horren ondorioz ez bada, ez da ulertzen zergatik aukeratu den Eniritik Doniturrietara pista hau

Ingurumen Dokumentuak dionez, maiatzetik abuztura bitartean aste-egunetako batezbesteko erabiltzaiteak 5 izango lirateke eta 7 asteburuetan; urtean gainerakoan 1-2 ibilgailu kalkulaten dira. Kalkulu hauen arabera, urtean zehar 1.059 bidai izango lirateke orain baino motzago izateko abantaila izango luketenak. ^Benetan pentsatzen al du Zuzendari Nagusiak murrizketa horretan 200.000 € gastatu eta mendiko naturan haiako kaltea sortzea pena merezi duela? **IEz** ote dago Aralarko abeltzaintzari tagungiariagoa izan eta haiako kalterik eragingo ez duen beste zerbaitetan inbertitzerik diru-kopuru hori?





Proiektuko Ingurumen Dokumentuak dionez, pista hau abeltzaintzari eusteko beharrezkoa da. Esaten ez duena da, ezagutzen diren azterketa guztien arabera, Enirio-Aralarko larreetan larratzaile gainkarga dagoela. Egoera honek hankaz gora jartzen du Ingurumen Dokumentuak zuripen bezala erabiltzen duen argudio nagusia, ez baitu aipatu ere egiten zenbat ganadu beharko litzakeen larre-habitatak egoera egokian mantentzeko. Beraz, onartezina da larre-habitaten kudeaketarako beharrezko dela aitzaki bezala hartzea, ganadua soberan dagoenean. ^Ingurumen Zuzendaritzaren aburuan zein da Enirio-Aralarko larreetan mantendu beharreko ganadu-karga egokia? Egun gainkarga badago ^zergatik egin nahi dira haiako inbertsioak eta kalteak?

NBAPkin jarraituz, 10. atatak, Nekazaritza eta abeltzaintza erabilerei eskainitakoa, dionez, Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzaileak (EKPE) Aralarko abeltzaintzaren antotamendua jorratu beharko luke. Gipuzkoako Foru Aldundiak egin eta onartu behar duen EKPE hau bideratu ez denez, Parke Naturelean ematen den :abeltzaintza erabilera arautu gabe jarraitzen du 23 urte pasa ondoren. Hala ere, NBAPk hainbat arau ematen ditu, batez ere Parke Naturalaren erabileren mugak zazpi Barruti desberdinetan zatitzen dituenean. Mugatuenak Erreserba Barrutiak dira eta, ondoren, Aralarko tarre eta azpiegituretan mugak ezartzerakoan eragin gehien duten bi barrutiak: Babes barrutiak eta Mendi Babesle barrutiak.

Enirio-Aralarren gaur egun larratzeko erabiltzen den azalera osotik, 400 ha Babes barruti horietan daude eta 1.200 ha berriz Mendi Babeslean.

Bi Barruti hauen arauetan garbi azaltzen dira abeltzaintza erabilerei jarri behar zaizkien mugak:

Lurzorua eraldatu dezaketen lan guztiak debekatzen dira (1) *Babes barrutietan*, aldaketa zuloak egiteko eta sarbideak iraun arazteko lanak salbu; (2) *Mendi babesle* barrutietan azpiegiturek mantentzeko edo hobetzeko.

Eta jarraibideetan jasotzen da: (1) larreratzeen mugaketa zorrotza, azientak emankortasun gehiago eta higadura arrisku gutxiago duten beste leku batzuetara lekualda daitezen lagunduz edo (2) artzaintzaren mugaketa, azienta mantentzeko gehienezko ahalmena erabakiz, eta azienta taldeak, emankorrako diren eta higadura arrisku txikiagoak dituzten inguruetara alda daitezen bultzatuz.

Gainera, abeltzaintza erabilerak dituzten lursaitetan (Mankornunitatean 1.600 ha da barruti hauetan egon eta abeltzaintza erabilera duen azalera), adaxkak bazkagia dituzten hostozabal autoktonoez osatutako basotxoak aldatu beharko dira. zona hauskorrenetan behintzat, azientaren babespenerako eta lurzoruari eusteko balio dezatei. Malda pikoetan, basotxo edo beste mota batzuetako zuhaitz aldaketak egingo dira lerrokadan, era horretan, lurzorua higadura ekiditeko.

Aralarko abeltzaintzaren antolaketarako dauden arau bakarrak hauek izanik. **zertan ari da Foru Aldundia luzera gehienez Mendi Babesle barrutitik doan pista baten eraiketa sustatzen? Arauteria jarraituz abeltzaintza mugatu behar den eremu hauetan zer asmo du Aldundiak? Noizko planteatu behar du Aldundiak Aralarko abeltzaintzaren (eta gainontzeko erabileren) antolaketa?**

Aranzadi Zientzia Elkartek garbi adierazi zuen iazko intzentsio-Saltarri pistaren inpaktua "gogorra eta atzerakorik ez duena" zela. Aurtengo proiektu honetaz ere beste hainbeste esateaz gain, okerrean jarraitzeko Atdundiaren setakeria salatu behar dela iruditzen zaigu.

Eta lotsagarria da **lege**-itxura egiteko proiektu baten inguruko inpaktuei buruzko iritzia eskaerak egitea, Parke Naturaleko arauak betetzen ari ez den Instituzioa Aldundia bera denean.



Eztabaida:

Sukia andreak esan du, zehaztutako pistaren exekuzio proiektuari alegazioak eta oharrak aurkezteko epea irekitzen zela, hori adierazten zuen iragarkia atera zela GAO-n eta une honetan Foru Aldundiko ingurumen organoak Ingurumen Eraginaren txostena idatzi zain dagoela espedientea.

Zehaztutako epean Mankomunitateko Udalek, edo horietako askok behintzat, beraien ekarpenak eta oharrak egin dituztela adierazi du.

Mozioaren testua irakurri du eta Foru Aldundiari egin beharreko galderak nabarmendu ditu.

Pista erabiliko duten onuradunekin egingo den inbertsioaren proportzionaltasunaz hitz egin du, abereen gehiegizko kopuruaz, babes eremu ezberdinak sailkatzen dituen PORN dokumentuaz.

Alkate jaunak erantzun dio esanez Fiskaltzak (dagokion Epaitegiak) Goroskintxu pistaren exekuzio proiektuaren aurkako salaketa ebatziko duela eta une horretan jakingo duela gaia nola geratzen den.

Hala ere, mozioaren edukiaz ondorengoak adierazi nahi ditu:

- 1) Ez ditu Batzar Orokorretan nahiz Mankomunitatean bertan gaiari buruz hartu ziren erabaki eta akordioak errespetatzen, tramitazioekin jarraitzekoak zirenak.
- 2) Ez da kontuan hartzen abeltzainek baldintza duinak izateko beharra.
- 3) Ez dira aitortzen abeltzainen eta artzainen jarduerak gizartean orokorrean eta bereziki natur parkean egiten dituen onura mesedegarriak.
- 4) Ez ditu abeltzainak parkea kontserbatzeko nahitaezko eragiletzat hartzen.

Eguren jaunak adierazi du mozioaren eduki osoa funts juridiko-teknikoetan oinarritzen dela. Hau horrela bada, Foru Aldundiak arauen aurka zergatik egiten duen galdetzen dio bere buruari.

Ez du uste garrantzirik dutenik eta hutsalak iruditzen zaizkio Alkateak emandako arrazoiak.

Abeltzainen sektorea parkerako onuragarria den ala ez, horrek ez du izan behar mozioari ematen zaion erantzuna, aurkeztutako mozioan jasotzen direnen moduko arrazoi tekniko eta juridikoekin erantzun behar zaio mozioari.

Alkate jaunak ziurtatu du Fiskaltzak edo dagokion epaitegiak ebatziko duela tramitazioa zuzenbideari egokitzen zaion edo ez.



## Ordiziako Udala

2017IOSB0009

Sukia andreak adierazi du ez dela eztabaida faltsu batean sartu behar. Mozioa ez doa Batzar Orokorretan eta Mankomunitatean hartutako erabakien aurka, hori ez da egia. Besterik gabe, ezin da legearen aurka egin.

Horrekin batera ez da egia abeltzainen interesak eta ingurumenarenak kontrajarriak direnik. Hori faltsua da.

Sukia andreak eta Eguren jaunak Alkateari eskatu diote osoko bilkurak mozioa onartzen badu, hartutako akordioaren ziurtagiria bidaltzeko Foru Aldundiko dagokion sailari.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

- Aldeko botoak: 7 (ORDIZIA ORAIN 2, EH-BILDU 5)
- Kontrako botoak: 5 (EAJ/PNV)
- Abstentzioak: 1 (PSEE-PSOE)

***Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.***



### **5.-EH-BILDUren mozioa, bidegorriak egitearen aldekoa.**

#### Proposamena

**Ordiziako** EH Bildu Udal Taldeak Goierriko Foru Bidegorrien Eraikuntzaren aldeko mozioa aurkezten du berriro, **Ordiziako** Udaleko Osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin, berau osatzen duten zinegotzi guztiak ez egonagatik, alkatearen kalitatezko bozak ezin duelako Udalbatzaren gehiengoa isilarazi.

Gainera, irailaren 22an Gipuzkoako txirrindulariak biltzen dituen hainbat elkartek euren iritzia publiko egin zuten Foru Aldundiak bidegorri sarearekin duen konpromiso faltaren inguruan (Noticias de Gipuzkoa). Kalapie (Donostia), eta Balazta (Bidasoa) eta Txirrinka (Oñati) elkarteek

<https://munigex.net/r/0/76/AAA3Y79N>

11



## Ordiziako Udala

2017IOSB0009

adierazi zuten, besteak beste, oraindik lan asko geratzen dela egiteke egun ditugun bidegorri zatiak batu eta benetako sare bat osa dezaten. Ez dago behar adina bidegorririk, eta daudenak ez daude euren artean lotuta.

Zentzu horretan, salatzen dute, hamar urtetan 15 milioko inbertsioak 2 miloi eskasetan geratu direla, eta martxa honetan, Gipuzkoako bidegorri sarea ez litzatekeela 2060 urtera arte amaituko. 2020rako aurreikusita eta onartuta zeuden plangintzak ez direla betetzen ari adierazten dute.

Izan ere, aurreko agintaldian, 2011/2015ekoan, hain zuzen, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana prestatu, onartu, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietara eraman zuen. Bertan, Batzar Nagusietan ordezkatura zeuden alderdi politiko guzti-guztiek, Aralar, PP, PSE-EE, EAJ/PNV eta EH Bilduk aldeko botoa eman zioten, Plana Foru Arau bilakatu, eta ondorioz, ordudanik berau betetzea loteslea izanik.

Foru Arauaren hitzetan, jendarte aurreratuetan joan-etorriak nabarmen hazi dira, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, gainerako administrazio eta gizarte eragileekin batera, motorrik gabeko mugikortasunaren alde egiteko beharra ikusi du, oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna bultzatuz. Horrela, beste garraiobideen aldean bizikletak garrantzi handiagoa eta protagonismo gehiago hartzea funtsezkoa da, izan ere, garraiobide biguna da, ingurumenaren ikuspegitik iraunkorra, energiaren aldetik eraginkorra, eta gizarte alorrean osasungarria eta bidezkoa.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekotzat jo zen Gipuzkoako hirigune nagusiak lotzeko bizikletentzako eta oinezkoentzako herriarteko bide sare bat edukitzea, behar bezala planifikatua, eraikia, artatua eta zaindua.

Horrela, herrietako eta herriarteko bizikleta bideen azpiegitura multzo moduan ulertu zen, eta bederatzi ardatz nagusi edo ibilbidetan banatu zen Gipuzkoa osoa, 3. Ibilbidea, Donostia-Beasain, Goierri lotuko zuena izan zelarik.

Bidegorri hauen eraikuntza Foru Arauak jaso zuen, lau urteko bi etapatan programatuz. Horretarako, urtero, gutxi gora behera, 14 miloi euro inbertitzea aurreikusten zen. Agintaldi honetan ordea, inoizko inbertsiorik txikienak egiten ari da Gipuzkoako Foru Aldundia, 2016an inbertsioa 2.5 milioira ez zen iritsi, eta aurreko ezta 2 milioira ere. Argi dago, beraz, oraingo Foru Aldundiarentzat, zoritxarrez, bidegorrien eraikuntza ez dela lehentasun bat.

Aurreko agintaldian, berriz, Foru Arauen jasotzen zen egutegiaren arabera, Itsasondo/Ordizia bidegorria burutu zen. Lehenengo lau urtekoa bukatuta egonik, azken bi urte hauetan Gipuzkoako Foru Aldundiak Goierri bidegorri metro bat bera ere ez duela eraiki salatu behar



da. Eta hau, oso larria izanda ere, are larriagoa da Aldundiko Mugikortasun Sailak ez duela inongo asmorik Goierrin bidegorririk egiteko.


Dagoeneko, Segura/Zegama, Ordizia/Zaldibia eta Beasain/Idiazabal bidegorri adarrak eraikita eta bukatuta egon behar ziren arren, eraikuntza ez da egin, eta aurten egitea ere ez da aurreikusten. Antza, bakarrik Segura/Zegamako azken zatia 2018rako bukatuta egongo da, oinezko eta txirrinduentzako 3 metroko zabalarekin bakarrik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 4 metroetako zabalaren irizpideetatik oso urrun. Era berean, dagoeneko 2017-2021ko 2. lau urtekoan sartuta egonik ere, ez dago inongo proiekturik Segura/Mutiloa edo Ataun/Lazkao bidegorriari inguruan.

Beraz, duela hilabete pare bat arrazoiak nahikoak baziren, denboraren poderioz indartu besterik ez dira egin, eta horregatik, mozio hau aurkezten dugu berriro ere, **Ordiziako** Udalbatza osatzen duten zinegotzi guztien artean eztabaidatua eta bozkatua izan dadin.

## **ESKAERA**

1. **Ordiziako** Udalbatzak bat egiten du 2013ko ekainaren 10an Gipuzkoako Batzar Nagusietan aho batez onartu zen Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana (2013/2021) Foru Arauarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio berau betetzea.
2. **Ordiziako** Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak Goierrirako aurreikusten dituen foru bidegorrien eraikuntza ez baztertzea, eta beraien lanei ahalik eta azkarren ekitea, denbora gehiagorik galdu gabe.
3. **Ordiziako** Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio 2018ko aurrekontuetan partida bat sor dezala Goierrin 2013/2017ko 1. lau urtekoan eraiki behar ziren bidegorri guztien finantzaketa berma dezan.
4. **Ordiziako** Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak Goierrirako aurreikusten dituen udal bidegorrien eraikuntza osatzeko 2018ko aurrekontuetan, helburu horri begira, eta udalak diruz laguntzeko, partida bat sor dezala.
5. **Ordiziako** Udalak mozio hau Gipuzkoako Batzar Nagusietara, Gipuzkoako Foru Aldundira eta Gipuzkoako Bizikleten Kontseilura bidaliko du.

## **Eztabaida**



Ezenarro jaunak adierazi du uztailen ekarri zuten mozioa dakartela berriro ere osoko bilkurara. Batetik, mozioa bozkatu zenean osoko bilkura osatzen duten zinegotzi guztiak bertan ez zeudelako, eta beraz, alkatearen kalitate bozak bozketaren emaitzan eragin, eta osoko bilkuraren gehiengoa desitxuratu zuelako. Bestetik, Foru Aldundiari alderdi guztiek bere garaian onartu zuten plangintza bat betetzeko eskatzen ari zaiolako Ordiziako Udala, indarrean dagoen plangintza bat. Horregatik, uztaileko osoko bilkuraren aktak irakurri ondoren, arraroa egiten zaio PNVk eta PSOEk kontra bozkatzea. Bestalde, uztaileko plenoa eta gero, irailean bertan, prentsan agertu da Gipuzkoako txirrindulari elkarteek egin duten salaketa, adieraziz, Foru Aldundiak izugarri moteldu dituela bidegorrien inguruan burutu beharreko inbertsioak, eta erritmo honetan jarraituko bagenu, 2060 urtera iritsiko ginatkeela aurreikusita dagoen bidegorri sarea burutzerako. Beraz, nahiz eta argi dagoen baliabideak agian ez direla garai batekoak, zenbait esparru bultzatzea erabaki politikoa da, eta horregatik uste dute, Foru Aldundiari eskatu behar zaiola Goierriako indarrean dagoen plangintzak aurreikusten dituen lanak burutzeko eskatzea.

Alkate jaunak esan du uztaileko osoko bilkuran aitortu zuela bizikleta plana aho batez onartu zela aurreko legegaldian eta baita aurrekoaren aurreko legegaldian ere.

Krisi ekonomikoaren eraginez aurrekontuak murriztu zirela argitu zuen soilik eta legegaldi batean eta bestean burututako pisten inguruko informazioa eman zuen.

Horrek ez du esan nahi Goierriko eskualdean bideak egitea sustatzeko Foru Aldundiari eskaera egitearen aurka dagoenik, eta horregatik mozioaren 2. puntuaren aldeko bozka emango dute.

Dubreuil jaunak ere mozioaren 2. puntuaren aldeko botoa emango du.

Bizikleta Plana aho batez onartu zela esan du baina aurrekontu erabilgarritasunaren arabera onartu zen planaren exekuzioa; hori dela eta, bat egiten du 2. puntuarekin baina ez gainerako puntuekin, Foru Aldundia bai ala bai behartu egiten duelako bere aukera ekonomikoak kontuan izan gabe.

Sukia andreak uste du udalerrriaren interesen alde borrokatu behar dela; hori dela eta, berak uste du ahalik eta azkarren egitea eskatzea ez dagoela tokiz kanpo eta ez du ulertzen zergatik osoko bilkurako kide batzuk eskaera honen aurka dauden.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

- Aldeko botoak: 7 (ORDIZIA ORAIN 2, EH-BILDU 5)
- Kontrako botoak: 6 ( EAJ-PNV 5, PSE-PSOE 1)
- Abstentzioak: 0

Jarraian, bereiz, 2. puntua bozkatu da:



Ordiziako Udala

2017IOSB0009

- Aldeko botoak: 6 ( EAJ-PNV 5, PSE-PSOE 1)
- Kontrako botoak: 0
- Abstentzioak: 0

EH-BILDU eta ORDIZIA ORAINen ordezkariak ez dute bozkatu.

***Ondorioz Alkate jaunak proposamena gehiengoz onartutzat eman du.***



## **6.- Mexikon izandako lurrikarak kaltetuentzako laguntza ekonomikoa emateko mozioa,PSEE-PSOEK aurkeztua**

### Proposamena

Gure begiz ikusi ditugu Mexikon izandako lurrikarak, eta izu handiz ikusi ditugu oraingoz, eta gutxienez, izandako 369 hildakoak. Hala eta guztiz ere, segurtasun osoz dakigu hildakoak gero eta gehiago izango direla. Horien artean, eskola batean izandako 30 haur baino gehiago.

Lurrikararen kalteak bereziki lazgarriak izan dira hiriburuan eta Mexikoko beste lau estatutan.

Mexikoko herritarrek zuzenean nahiz zeharka pairatu izan dezaketen sufrimenduaren aurrean, gure iritziz udal honek elkartasunezko ekintza bat burutu beharko luke Mexikora laguntza ekonomikoa bidalita, kaltetutako pertsoneri eta familiei laguntzeko.

Bestalde, kontuan izan behar dugu Ordiziako Udalak jasoa eta aintzat duela, garapenerako lankidetzaprograman, "Ekintza humanitarioetarako larrialdietako laguntzak" ematea, *larrialdietako ekintzak burutzeko, larrialdian edo hondamendi-egoeran dauden pertsoneri eta komunitateei bideratua, egoera horiek hondamendi **naturalek, gatazka armatuk** nahiz antzeko egoerek sortuak izanda ere.*

Hori dela-eta, Ordiziako Udalari proposatzen diogu onar dezan ondorengo

### **MOZIOA:**

1. Ordiziako Udalak laguntza ekonomikoa bidaliko du Mexikora kaltetutako pertsoneri eta familiei laguntzeko erabil dezan.



2. Horretarako, Ordiziako Udalak bidali beharreko zenbatekoa, hori premiaz gauzatzeko aurrekontu-prozedurarik egokiena zein izango den eta laguntza jaso eta **hondamendiaren ondorioak** arintzeko **beharrezkoak** izango diren proiektuetan eta ekintzetan erabiliko duten gizarte-eragileak zein izan daitezkeen aztertuko ditu.

3. Ordiziako Udalak laguntza hori 2017. urtea amaitu aurretik gauzatu du, 2018an bestelako laguntzak emateko aukera alde batera utzi gabe.

### Eztabaida

Dubreuil jaunak esan du, hondamendiak izan diren aurreko egoeretan bezalaxe, laguntza bat proposatzen dela, laguntza mota honetarako aurrekontuan jasotako 6.000 euroetara arteko laguntza.

Maiza andreak esan du hondamendiak Puerto Rico ere astindu duela eta hori dela eta, bidezkoena laguntza bi herrialde hauen artean banatzea dela iruditzen zaio.

Soto andreak esan du hondamendi naturalek eragindako egoera hauez gain erantzuna behar duten bestelako larrialdi-egoera batzuk ere badaudela eta partidaren bat bideratu beharko litzatekeela horretarako.

Dubreuil jaunak erantzun dio esanez Ordiziako Udalari ezin egotz dakiokkeen zerbait badago hori larrialdi egoeretan elkartasunik ez erakustea dela.

Maiza andreak esan du mozioa PSEE-PSOErena dela baina badagoela partida bat Gizarte Zerbitzuetako Sailean eta saileko teknikariak edo arduradunak proposatu behar lukeela hori eta ez alderdi politikoek. Larrialdia teknikariek baloratu behar lukete eta protokolo bat finkatu behar litzateke.

Dubreuil jaunak uste du Gizarte Zerbitzuetako Delegazioak erabaki behar duela hau.

Maiza andreak erantzun dio eta esan duena edo esan nahi izan duena argitu dio, eta esan du partida izanik prozedura finkatu daitekeela eta Gizarte Zerbitzuetako Delegazioa bera izan dadila proposamena zuzenean osoko bilkurara eramaten duena.

Dubreuil jaunak erantzun dio esanez alderdi politikoek ere proposamenak egin ditzaketela.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

- Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, O.ORAIN 2, PSEE-PSOE 1)





- Kontrako botoak: 0
- Abstentzioak: 0

***Ondorioz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat eman du.***



## **7.- HAPOn Aurrerakina erakusketa publikoan ipintzeko akordioa.**

### Proposamena

Plan Orokorra idatzi duen arkitektoak, Pilar Amenabar Zabalak, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren AURRERAKIN dokumentua egin duela jakinarazten da.

Horrekin batera AURRERAKIN dokumentuari dagokion Ingurumenaren Ebaluazio Estrategikoaren prozedura hasteko dokumentuaren berri ematen da.

Aplikatu beharreko araudia ikusirik:

- Ekainaren 30eko, Euskadiko Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legearen 90.3 eta 108 artikulua.
- Abenduaren 9ko Ingurumenaren Ebaluaziorako 21/2013 Legea.
- Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua, plan eta programen ebaluazio estrategikorako prozedura arautzen duena.

2017ko irailaren 20ko Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:


#### AKORDIO PROPOSAMENA

LEHENA.- Antolamenduaren irizpideak, helburuak, aukera eta proposamenak jasotzen dituen HAPOn AURRERAKIN dokumentuaren izapideei hasiera ematea.

BIGARRENA.- Dokumentua erakusketa publikoan ipintzea 2018ko urtarrilaren 15ra arte, egun hau barne (legeak ezarritako gutxieneko epea betez), dokumentuaren inguruko iradokizunak eta aukerak aurkezteko aukera emanez.

HIRUGARRENA.- Mugakide diren udalei bidaltzea dokumentua, horren berri izan dezaten.

LAUGARRENA.- Udal Plangintzako Aholku Batzordeari Aurrerakinaren berri ematea, bertan jasotzen diren gidalerro eta proposamenen berri izan dezan eta erakusketa publikoko epean dagokion txostena egin dezan.



BOSGARRENA.- Dokumentuaren Ingurumenaren Ebaluazio Estrategikoko prozedurari hasiera ematea; Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailera bidatzea eta irismen-agiria eskatzea.

### Eztabaida

Alkate jaunak azaldu du aurreko osoko bilkuran puntu hau mahai gainean geratu zela eta berriro ekartzen dela osoko bilkurara HAPOa onartzeko beharrezkoak diren izapideak martxan jartzeko.

Ezenarro jaunak hitza hartu du, gaiaren inguruan zenbait azalpen eman behar direla uste duelako.

Adierazi nahi du, Aurrerakina erakustaldi publikoan jartzeko erabakia iraileko osoko bilkurara eraman nahi izan zela, eta oposizioko alderdiek plenoa baino aste bete lehenago, irailaren 20ean ospatu zen plenorako gaien batzordean izan zutela horren berri. Egia esatekotan, egun bat lehenago izan zen, irailaren 19an ospatu zen hirigintza aholku batzordean jakin baitzuten Aurrerakina iraileko osoko bilkuran onartuko zela. Zentzu horretan, adierazten du, ez duela ulertzen udal gobernuaren jarrera, jakinda, gai hauek aurrera ateratzeko osoko bilkuraren gehiengo behar dela, eta horregatik, ulertzina egiten zaio inolako informaziorik ez helaraztea.

Irailaren 20ko plenoko gaien batzordean gaia mahai gainean geratu zen, baina ordura arte, maiatzaren 10etik alegia, ez zitzaigulako inolako informaziorik eman. Egun horretan ospatu baitzen azkeneko Plan Orokorraren batzordea, non apirilaren 5ean parte-hartzea dinamizatuko duen enpresak bidalitako dokumentazioa erakutsi, eta maiatzeko osoko bilkuran onartu zen parte-hartze programa adostu zen.

Hortik aurrera ezer ez. Oposizioa irailaren 20eko plenoko gai batzorde hartara inolako informaziorik gabe iritsi zen. Ez zekien plenoak onartutako parte-hartze programa hura nola garatzea pentsatzen zen, informazioa nola kudeatuko zen, esan baitzen zentzu horretan parte-hartze osoa aintzat izango zuen enpresa bakarra eraginkorragoa izango zela, zein izango zen informazioaz arduratuko zen enpresa, etab. Izan ere, Aurrerakina erakustaldi publikoan jartzeko erabakiaren aurrekarietan aipatzen den Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 108 artikulua horrek berak dio, herritarren parte-hartzea sustatzeko, legez beharrezkoak diren dokumentuez gain, material dibulgetzailea sortu beharko dela, herritarren ezagutza erraztu eta horrela parte-hartzea sustatzeko. Beraz, legeak ezartzen ez duen ezer eskatzen ez direla ari dio.

Iraileko plenoko gai batzorde horren ondoren birritan bildu direla dio. Urriaren 2an Plan Orokorraren batzordea bildu zen, eta bertan, lehendabizikoz, erakutsi zen burutu nahi den erakusketan erabiliko den materiala, etab. Zentzu horretan ere, ekarpen eraikitaileak egin zirela azpimarratu nahi du. Bukatzeko, azkeneko bilera urriaren 10ean izan zen, parte-hartze dinamika burutuko duen enpresako arduradunekin. Bertan, argi adierazi zuten, erakustaldia ireki baina aste bete lehenago gutxienez, ordiziarrek euren etxetan jaso beharko luketela erakusketaren inguruko informazioa, eta baita Plan Orokorra ulertzeko zenbait azalpen ere. Aldizkari hori egin gabe zegoen, eta horregatik, ez zeukan inolako zentzurik, ez-ohiko pleno bat deitzeak. Hau da, etxeko lanak egin gabe daudela eta oraindik ez da ezagutzen aldizkari horren inguruko berririk. Badirudi, alkateak aurreko asteko plenoko gaien batzordean erakutsi bezala, astirik ez zegoela-eta, aldizkaria triptiko moduko batean bilakatuko dela. Alkateak triptikoa erakutsi ziola dio, baina ez zaiela helarazi.

Beraz, alde bozkatuko dugu, baina fede onez, argi dagoelako ez zaiela behar adina informaziorik eman.



Bukatzeko, Dubreuil jaunari eskatu dio, urriak 10eko azkeneko bilera hartan adierazi zien bezala, "esa gente" deituz, berak zegokion lekuan erantzungo ziela, bere erantzunak kutsu politikoa zutelako. Beraz, "esa gente" hori, Mila Sukia eta Adur Ezenarro zirela adierazi ondoren, esan beharrekoak esateko eskatu dio.

Dubreuil jaunak adierazitakoagatik barkamena eskatu du. Jarraian esan du azkeneko bi urte hauetan zehar ikusi duen bakarra dela plana onartzeko prozedura moteltzeko eta oztopatzeko saiakera. Urriko osoko bilkurara iritsi gara eta oposizioak adierazi du erantzukizuna gobernu-taldearena dela, eta honek ez dituela etxerako lanak egin.

EH-BILDUri galdetu dio ea zer egin duten beraiek aurreko legealdiko lau urteetan zehar.

Berak uste du oposizioa planaren onarpena atzeratzen ari dela eta planak onartua behar zuela honezkero.

Ezenarro jaunak barkamena eskatu izana eskertu dio.

Erronka interesgarri bat proposatu dio: Hasierako agiria har dezala, aurrerakinari dagokiona, legealdi honen hasierakoa eta gaur onartu nahi den agirian funtsezko desberdintasun bat bilatzen saia dadila.

Sukia andreak esan du herritarren partaidetza garrantzitsua dela baina ez tramite gordin gisa.

Hitza eskatu du jendartean dagoen Enrique Redondo jaunarentzat.

Enrique Redondo jaunak esan du 2012. urtean diagnostikoari eta azterketari dagokion lehenengo dokumentua egin eta onartu zela eta 2015. urtearen amaieran dokumentuak gaur osoko bilkuran onartzeko ekarri den dokumentuaren eduki bera zuela.

Alkate jaunak erantzun dio esanez aipatu duen Azterketa eta Diagnostiko agiria 2016ko azarokoa dela. Dokumentu hau Alternatiben, Irizpideen eta Soluzio Orokorren agiriarekin nahasten du.

Dubreuil jaunak ez du ulertzen alternatibak eginak eta finkatuak izanik orain dokumentua zergatik aldatzen den.

### Bozketa

- Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, O.ORAIN 2, PSEE-PSOE 1)
- Kontrako botoak: 0
- Abstentzioak: 0

***Ondorioz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat eman du.***



## **8.-“ITURTZO” 5 HIEko 5.1.EUaren xehetasun azterketa behin betiko onartzea.**

### Proposamena

Arau Subsidiarioetako “5-Iturtxo” Hirigintza Interbentzio Eremuaren 5.3. Exekuzio Unitatearen Xehetasun Azterketa onartzeko bideratu den espedientearen berri ematen da, Goi-Etxe, S.A. enpresak eskatuta eta Ibon Ibon Rosales arkitektoak idatzia.

2017ko maiatzaren 11ko 428. zenbakiko Alkatetza Dekretuaren hasierako onarpenarekin jendaurrera zabaldu zen legeak ezarritako epean eta moduan, Udaletxeko iragarki-taulan argitaratutako iragarki bidez, 2017ko maiatzaren 22ko 96. zenbakiko GAO-n, eta 2017ko maiatzaren 25ko egunkarian, eta ez dute alegaziorik aurkeztu.

2017ko ekainaren 20ko Obra eta Hirigintza Delegazioaren aldeko erabakia ikusita, eta behin betiko onartu beharreko Udal Arkitektoaren txostena ikusita, 2017ko urriaren 18ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak ondorengo erabakia hartu du:

### **AKORDIO PROIEKTUA**

- 1.- Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako “5-Iturtxo” Hirigintza Interbentzio Eremuaren 5.3. Exekuzio Unitatearen Xehetasun Azterketa behin betiko onartzea.
2. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onartu den akordioa, testu arauemaile osoa barne, eta Gipuzkoako Foru Aldundian jakinaraztea hamar eguneko epean, eta baita Xehetasun Azterketako lurralde eremuko sustatzaile-jabe bakarrari ere.

### Eztabaida

Alkate jaunak Xehetasun Azterketa onartzeko arrazoia zein den azaldu du.

Ezenarro jaunak hitza hartu du, gaiak zenbait azalpen behar dituela adieraziz, eta gainera, “por alusiones” esaten den moduan, erantzutea dagokiolako. Izan ere, aipatzen du, azkeneko Tokiko Gobernu Batzordean alkateak esan zuela EH Bilduk, eta Adur Ezenarrok, gaia blokeatu duela, eta horrek atzerapenak eragin dituela. Adur Ezenarro bera dela argudiatuta, azalpenak ematea berari dagokiola adierazi du, eta hori ez dela horrela izan argituko duela.

Ezenarro jaunak dio, gai honen berri ere uztailaren 12ko plenoko gaien batzordean izan zutela lehendabizikoz, uztailako plenora eraman nahi zelako. Bertan argitu beharreko hainbat zalantza adierazi zituela, eta biharamunean, uztailaren 13an, idatziz helarazi zizkiela batzordeko kide guztiei hitzen esandakoak. Argitu nahi izan du, ez zela bi lerrotako esaldia izan, baizik eta legeak ezartzen duenaren



## Ordiziako Udala

2017IOSB0009

arabera ondo argudiatutako eskaera bat, non zalantzak argitzeko zegozkion txosten juridiko eta teknikoak eskatzen zituen.

Txosten horiek ez ziren jaso, eta harriduraz, sustatzaileak bilera bat eskatu zietela dio. Irailaren 13an bildu ziren, udal gobernuak, uztailaren 13an bidalitako e-mailean eskatutako txosten horiek burutu ordez, eskaera zuzenean sustatzaileari helarazi ziolako.

Irailaren 13an sustatzailearekin gaia argitu zen, eta egun hartan bertan euren abokatuari bidali zitzaion idatziz gaia argitzeko eskatzen genuena.

Gauza erraza da, konplexutasunetan sartu gabe, eraikin hori burutzeagatik sustatzaileak diru kopuru bat ordaindu behar dio Ordiziako Udalari, eta Ezenarro jaunak dio ez dela espedientean horren inguruko txostenik jaso, horixe eskatzen dutela, besterik ez. Gainera, sustatzailea ere dagokiona ordaintzeko prest dagoela, eta oposizioak ezagutzen ez duen diru-kopururen baten inguruan ere hitz eginda dagoela. Azkenean txosten horiek urriaren 16ean jaso genituen, eta urriaren 17an zenbait azalpen eskatu genituen idatziz. Azkeneko aste honetan argitu da gaia udal arkitektoarekin, eta beraz ez daukagu eragozpenik gaia onartzeko. Alabaina, ez da egia, gai honen inguruan atzerapena edo blokeoa Ordiziako EH Bilduk edo Adur Ezenarro eragin duenik.

Bukatzeko, guk eskatzen dugu, xehetasun azterlana onartzea, baina gogoraztea, bertan onartutakoa gauzatzeko udal arkitektoak burututako balorazio txostenetik eratorzen den diru kopurua ordaintze ekarriko duela obra baimena lortzerakoan, eraikiagarritasun haztatuaren gehikuntzari dagokion %15a hain zuzen.

Honela geratuko litzateke:


Gogorarazten da, orain onartzen den Xehetasun Azterlanean aurreikusitakoa gauzatu ahal izateko, udal arkitektoak burututako balorazio txostenetik eratorzen den diru kopurua ordaindu beharko dela obra baimena lortzerakoan, hau da, eraikiagarritasun haztatuaren gehikuntzari dagokion %15a hain zuzen ere.

Beraz, osoko bilkurak onartu beharreko akordio proposamena era honetan geratzen da idatzita:

Arau Subsidiarioetako "5-Iturtxo" Hirigintza Interbentzio Eremuaren 5.3. Exekuzio Unitatearen Xehetasun Azterketa onartzeko bideratu den espedientearen berri ematen da, Goi-Etxe, S.A. enpresak eskatuta eta Ibon Ibon Rosales arkitektoak idatzia.

2017ko maiatzaren 11ko 428. zenbakiko Alkatetza Dekretuaren hasierako onarpenarekin jendaurrera zabaldu zen legeak ezarritako epean eta moduan, Udaletxeko iragarki-taulan argitaratutako iragarki bidez, 2017ko maiatzaren 22ko 96. zenbakiko GAOn, eta 2017ko maiatzaren 25ko egunkarian, eta ez dute alegaziorik aurkeztu.

2017ko ekainaren 20ko Obra eta Hirigintza Delegazioaren aldeko erabakia ikusita, eta behin betiko onartu beharreko Udal Arkitektoaren txostena ikusita, 2017ko urriaren 18ko Osoko Bilkurarako Gaiaren Batzordeak ondorengo erabakia hartu du:



## AKORDIO PROIEKTUA

1.- Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako "5-Iturtxo" Hirigintza Interbentzio Eremuaren 5.3. Exekuzio Unitatearen Xehetasun Azterketa behin betiko onartzea.

2. - Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onartu den akordioa, testu arauemaile osoa barne, eta Gipuzkoako Foru Aldundian jakinaraztea hamar eguneko epean, eta baita Xehetasun Azterketako lurralde eremuko sustatzaile-jabe bakarrari ere.

3.- Gogorarazten da, orain onartzen den Xehetasun Azterlanean aurreikusitakoa gauzatu ahal izateko, udal arkitektoak burututako balorazio txostenetik eratoritzen den diru kopurua ordaindu beharko dela obra baimena lortzerakoan, hau da, eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzari dagokion %15a hain zuzen.

### Bozketa

- Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV5, EH-BILDU 5, O.ORAIN 2, PSEE-PSOE 1)
- Kontrako botoak: 0
- Abstentzioak: 0.

***Ondorioz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat eman du.***



### **9.-Kreditu aldaketa: Kreditu transferentzia.**


#### Proposamena

2017ko ekitaldian sortu diren behar berriei aurre egiteko, beharrezkotzat ematen dugu kreditu aldaketa.

2017ko urriaren 18ko Plenoren Gaien Batzordeko aldeko irizpenarekin, honako akordio hartzea proposatu da.

#### AKORDIO PROPOSAMENA

Atxikiten den kreditu aldaketa, transferentzia motakoa onartzea Kontuhartzailearen oniritziarekin.

**KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA****Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 481.01.338.10.1400 2017	Diru-Lagunt. Erakundeei.	19.412,76	4.000,00	15.412,76
1 480.08.231.00.1000 2017	Lagunt. Familiei: Adintxikoak arriskuan.	42.000,00	42.000,00	0,00
1 227.04.231.50.1100 2017	Azterlan teknik..Berdintasuna	14.000,00	2.000,00	12.000,00
1 211.01.337.10.0800 2017	Mant.lan.eraik.Jubilatuena egoitza	17.100,09	17.100,09	0,00
1 212.02.337.10.1100 2017	Mant.lan. bereziak. Jubil. Egoitza	1.000,00	1.000,00	0,00
1 622.01.342.00.1500 2017	KUBOAREN OBRA ZUZENDARITZA	48.400,00	21.583,55	26.816,45
	<b>GUZTIRA</b>	<b>141.912,85</b>	<b>87.683,64</b>	<b>54.229,21</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 226.97.338.10.1400 2017	AUZOETAKO JAIK	12.647,91	4.000,00	16.647,91
1 227.04.231.00.1000 2017	Kontr. de Ongiz.saila	47.000,00	22.000,00	69.000,00
1 480.02.231.30.1000 2017	Larriald.. Lagunt. Ongiz.saila	162.311,00	20.000,00	182.311,00
1 226.06.231.50.1100 2017	SENSIBIL. JARDUK.Berdintasuna	21.019,47	2.000,00	23.019,47
1 481.03.337.10.1100 2017	ZUHAIZTI JUBILATUEN ETA PENTSIOD. ELKART	11.800,00	18.100,09	29.900,09
1 643.01.342.00.0000 2016	ESTUDIO INSTALACIONES MAJORI	32.812,00	21.583,55	54.395,55
	<b>GUZTIRA</b>	<b>287.590,38</b>	<b>87.683,64</b>	<b>375.274,02</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira



Eztabaida:

Alkate jaunak aurrekontu aldaketa zertan datzan azaldu du.

Intxausti andreak esan du Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aztertu zenetik puntua, partida eta kopuru batzuetan aldaketak izan direla.

Puntua mahai gainean uztea proposatu du, kontu-hartzailea oporretatik itzuli arte. Ez du uste azaroko osoko bilkuran onartuta arazorik izango denik.

Dubreuil jaunak erantzun dio esanez GLLengatik presa duela. Partiden aldaketari buruzko informazioa eman du eta helburua GLL partida handitzea dela adierazi du.

Intxausti andreak ez du zalantzan jartzen guztiak bere azalpena eta justifikazioa duenik baina beste batean halakorik gertatzen bada Kontu-hartzaile jaunarekin eta Iturrioz jaunarekin bilera egitea eskatzen du informazioa jaso dezaten.

Bozketa

- Aldeko botoak: 8 (EAJ-PNV 5, O.ORAIN 2, PSEE-PSOE 1)
- Kontrako botoak: 0
- Abstentzioak: 5 (EH-BILDU)

***Ondorioz Alkate jaunak proposamena gehiengoz onartutzat eman du.***




**10.- Kreditu aldaketa: Kreditu gehikuntza.**

Proposamena

2017ko ekitaldian sortu diren behar berriei aurre egiteko, beharrezkotzat ematen dugu kreditu aldaketa.





2017ko urriaren 18ko Plenoren Gaien Batzordeko aldeko irizpenarekin, honako akordio hartzea proposatu da.

AKORDIO PROPOSAMENA

Atxikiten den kreditu aldaketa, gehigarrien motakoa onartzea Kontuhartzailearen oniritziarekin.

**KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA**

